

Katu
bazen behin...
Gasteizen



GARGOILE 12

Izenburua: Katu bazen behin... Gasteizen

(c) Santa Maria Katedrala Fundazioa - Fundación Catedral Santa María

Argitalpena eta zuzendaritza: Santa Maria Katedrala Fundazioa - Fundación Catedral Santa María

Egileak:

Testuak: Ainhoa Gómez

Marrakzlak: Ismael García

Maketazioa: Jose Antonio Ugarte

Lehen argitalpena: 2012ko abendua

ISBN:

Lege-gordailua:

Inprimatzea: Arabako Foru Aldundiko inprenta



Aitoru-Ez komertziala-Lan eratoririk gabea 3.0

Zera egin dezakezu:



lana kopiatu, banatu eta publikoki komunikatu

Baldintza hauetan:



Aitoru. Egi eak edo izentzia-emai eak zehaztutako moduan aitoru behar dituzu anaren kredituak (baina ez duzu inorkiko egi earen edo izentzia-emai earen babesa ezuzi a edo haiek zuzi aha erabiltza babesten dutu a)



Ex komertziala. Ezin duzu an hau xede komertzialekin erabili.



Lan eratoririk gabea. Ezin da an hau a datu, eratu edo an hau abiapuntu hartuta beste an bat eratorri bat sortu.

- Lana bererabi i edo banatzerakoan, argi utzi behar dituzu an honen izentzia-baldintzak.
- Lan honetako irudiak beste an batean erabili z gero, an eratorri gisa hartuko da; beraz, ezin da beste ino eko testuingurutan erakutsi.
- Baliteke baldintza horietako bat ez ap ikutzia, egi e-eskubidoen jabearen baimena orizen bada.
- Lizentzia honetako ezker ez du egi earen eskubide more a kaltetzen edo mugatzen.



Noizbait Gasteizko Santa Maria Katedrala bisitatu baduzu, agian ikusiko zenuen ezkutuka ibiltzen den katu urdin bat. Ni nintzen, Katu! Katedrala nire etxea da, hemen bizi naiz jaio nintzenetik. Nire aurretik nire gurasoak bizi izan ziren, eta lehenago nire aitona-amonak, birraitona-birramonak eta 1.300 urte edo gehiagotako nire familiako belaunaldi guztiak. Nik badakit hemen zer pasa den, nire amak hiriaren eta tenpluaren historia guztia kontatu baitit.

Santa Maria Katedralaren sekretu guztiak ezagutu nahi dituzu? Lotu gerrikoa, denboran barrenako bidaia hastera goaz-eta!

Ia ahaztu zait! Testuan zehar * daramaten hitzak ikusiko dituzu. Hitz zailak dira eta beren esanahia liburuaren amaieran aurkituko duzu.

Oraingo honetan hiri hau duela 1.300 urte baino gehiago nola sortu zen kontatuko dizut, nola eraiki ziren lehen etxeak, nola bizi ziren eta zer jaten zuten eta, baita defendatzeko harresi batekin nola inguratu zuten ere.



Katu
bazen behin...
Gasteizen



Bitxia iruditzen bazaizu ere, Santa Maria Katedralaren sekretu guztiak ezagutzeko ibilbidea ez dugu katedralean bertan hasiko, Vitoria-Gasteiz hirian baizik. Bien historia batera joan baita eta, katedralean egin diren lanei esker, gure hiriaren iraganari buruzko gauza asko ezagutu ditugu, sorrera, esaterako...

Gaur egun, Vitoria-Gasteizek 240.000 biztanle baino gehiago ditu, baina sortu zenean oso-oso txikia zen eta Gasteiz soilik deitzen zen. VIII. mendean sortu zen, hau da, duela 1.300 urte baino gehiago. Gasteiz muinoaren puntan zegoen, gaur-gaurkoz katedrala dagoen tokian, eta ez zuen kalerik ere. Orduango etxeek ez zuten zerikusirik gaur egungoekin. Ez didazu sinesten? Begiratu hurrengo orrialdeko marrazkia eta ikusiko duzu egia dela. Badakizu zein material erabili ziren etxeak eraikitzeko??





Katu
bazen behin. Gasteizen

Asmatu duzu! Egiturarako* inguruko zuhaitzen egurra erabiltzen zuten, lastoa sabaiarentzat eta hormak, berriz, adar eta buztinarekin egiten ziren.

Imajina ezazu etxea material horiekin egiten duzula, uste duzu euriarekin edo haizearekin denbora luzez iraungo lukeela? Ez, ez zuten asko irauten eta maiz berreraiki behar izaten zituzten. Orduan... zer egin dugu etxe haiek nolakoak ziren jakiteko, gaur egun arte iraun ez badute? Ikus dezagun aukera hauetako zein izan daitekeen; markatu X batekin zuzena deritzozun erantzuna:

- 1- Ni garai hartakoa naiz eta katedralean lanean ari direnei kontatu diet.
- 2- Ikertzaileek denbora-makina bat dute eta 1.300 urte atzerantz egin dute.
- 3- Erakusten duten argazkiak daude.
- 4- Arkeologoen indusketak egin eta etxola* hondarrak aurkitu dituzte.




Zer erantzun duzu? Egia esan, katuok zazpi bizitza baditugu ere, ez gara hainbeste urte bizi, ez zegoen argazki-kamerarik duela 1.300 urte eta oraindik ez du inork denbora-makinarik asmatu. Orduan, aukera bakarra gelditzen zaigu: arkeologoak.



Arkeologia-adituek katedralaren barnealdea eta kanpoaldea zulatu dute. Hasieran, pikatxoiarekin eta palaren zulatzen dute, baina lurraren kolorea aldatzen dela ohartzen direnean edo objekturen bat aurkitzen dutenean, paletinak* eta isipiak erabiltzen dituzte lurra kontu handiz kentzeko. Marrazkian lurperatze batetik lurra nola kentzen duten ikus daiteke, hezurdura agerian uzteko.

Katu
bazen behin. Gasteizen



Detektibeak bezalakoak direla esan daiteke. Lurpean “pistak” bilatzen dituzte iraganean zer zegoen, nola bizi ziren, nolako eraikuntzak egiten zituzten eta denbora pasa ahala nola eraldatu ziren, zer objektu zituzten... jakiteko.

Baina, zer aurkitu dute zehazki? Itzuli 6. orrialdera eta jarri arreta lehenago ikusi dugun etxean, egurrezko egitura ikusi duzu? Nola uste duzu mantentzen zituztela zutoinak zutik? Galdera zail samarra denez, arrasto bat emango dizut: hondartzara zoazenean eta eguzkitako bat ematen duzunean, zer egiten duzu zutik gelditu dadin? Pentsatu pixka bat eta idatzi hemen zure erantzuna.....



Bai eguzkitako bat, bai zutabe bat jartzeko, lurrean iltzatu behar dira. Denbora igaro ahala, zutabeetako egurra desagertu egiten da, eta eguzkitakoa kentzen dugunean gertatzen den bezalaxe, zulo bat gelditzen da!

Aurreko orrialdera itzultzen bazara, etxolek utzitako zuloak ikusiko dituzu.

Beste toki batzuetan aurkitutako antzeko hondarrekin konparatuta, duela 1.300 urte nolako eraikinak zeuden zehazten dute arkeologoek.



Hemen
dugu berriro
Gasteizko herrixka*.
Animalia irteten ari den
etxola ukuilua da. Etxe
handienetan pertsonak bizi ziren.
Fruta-zuhaitzak eta baratzak ere
ikus ditzakegu. Han jateko guztia
landatzen zuten.

Zure ustez zer animalia izango zituzten? Zerrenda bat egin dut, baina uste dut baten bat gaizki jarri dudala, lagunduko didazu? Markatu X batekin, zure ustez zuzenak direnak.



Oiloa

Zebra

Idia*

Txakurra

Katua

Txerria

Lehoia

Astoa

Behia

Ardia


Untxia

Gamelua

Katu
bazen behin. Gasteizen

Arrazoi duzu, ez dakit zertan ari nintzen pentsatzen lehoia, zebra eta gamelua jarri ditudanean. Animalia horiek Afrikan bizi dira, ez hemen. Egia esan, katuok, eta baita txakurrak ere, ez ginen orduan orain bezain ondo bizi. Katuok saguak ehizatu behar genituen uztak jan ez zitzaten eta txakurrek ardiak zaindu behar zituzten. Oso gogorra zen! Gainerako animaliak ere oso garrantzitsuak ziren. Behietatik gazta eta mamia egiteko esnea, haragia eta zapatak edo arropak egiteko larrua* lortzen zuten; ardietatik, gainera, artilea lortzen zuten. Txerrietatik haragi guztia aprobetxatzen zen eta oiloetatik arrautzak, nahiz eta jan ere jaten zituzten. Idiak, hain indartsuak izanda, lursailak goldatzeko* eta gurdi

oso pisutsuak tiratzeko erabiltzen ziren; astoak eta mandoak*, aldiz, garraiobide gisa balio zuten. Ehizatu eta inguruko ibaietan arrantza ere egiten zuten.



Denboran aurrera jauzi bat egingo dugu... 200 urte igaro dira eta X. mendean gaude, hau da, duela 1.100 urte.

Une horretan, Gasteiz handitu egin da. Jende gehiago bizi da eta, ondorioz, etxe gehiago eraiki dira inguruko zuhaitzak erabilita.

Lehen ez zeuden bide oso markatuak agertu dira eta, denbora pasa ahala, hiriko kale zaharrenak bihurtuko dira beroriek.



Katu
bazen behin. Gasteizen



Ikus dezagun etxe
horietako bat
gertuagotik.
Begiratu arretaz!

Behealdean harrizko horma txiki batzuk dituzte, nahiz eta
buztinarekin, adarrekin, egurrarekin eta lastoarekin egiten
jarraitzen zuten.

Horrela, hobetu egin zituzten, zoruko hezetasunetik isolatuta.
Arkeologoek zer aurkitu zutela uste duzu hori jakiteko?
Idatzi ezazu hemen, ea asmatzen
duzun.....



Ziur asmatu duzula.
Kasu horretan, etxolen
harrizko hormen
aztarnak aurkitu
zituzten




Katu
bazen behin. Gasteizen

GARÇOLE IR



Nola
aldatu den!

Berriz ere apur bat aurrera egingo dugu
denboran, XI. mendera arte, hau da,
duela 1.000 urte ingurura arte.



Gasteiz asko hazi da. Lehen
ikusi ditugun bideak 3 kale
bihurtu dira. Gainera, eliz
bat du. Arkeologoek
katedralaren barnealdean
aurkitu dituzte eliz haren
hondarrak.

Lehen baino askoz etxe gehiago daude, baina duela 100 urte erabiltzen ziren material berekin egiten jarraitzen dute. Gogoan dituzu zein bost material erabiltzen ziren?

Aurki itzazu letra-zopan. Horizontalean, bertikalean edo diagonalean egon daitezke.

Gogoratzen ez bazara, 15. orrialdean begira dezakezu



H	A	R	R	I	A
B	L	H	N	A	D
U	A	B	A	M	A
Z	S	R	R	A	R
T	T	A	R	S	R
I	O	M	U	I	A
N	A	S	G	O	K
A	L	S	E	I	E

Emaitza 32. orrialdean

Nolanahi ere, nire arreta herrixka inguratzen duen hormak erakartzen du, badakizu zer den? Hitz hauetako bat zuzena da; jarri X bat eta lagun iezadazu aurkitzen.



Murrua

Hesia

Harresia


Burdin esia

Pareta

Horma





Asko dakizu, harresia deritzo baina... zertarako balio ote zuen?



Harresiak etsaiengandik babesteko balio zuen. 8 eta 9 metro arteko altuera izango zuen eta 1,60 metroko zabalera. Dorre* karratuak zertxobait altuagoak izango ziren, 12 eta 13 metro artekoak.

Harresiaren zati ziren dorreek eskailerak zituzten eta soldaduak goialdera igo zitezkeen "erronda-pasagunea" deritzon korridore antzeko bateraino, eta han "erronda" egiten zuten, hau da, bueltaka ibiltzen ziren etsaia gerturatzen ari zen zelatatzeke. Bilatu ondo marrazkian, ea aurkitzen dituzun soldaduak zelatatzen. Imajina ezazu han goian zaudela... Arabako Lautada gehiena eta etsaia badatorrela ikusiko zenuke urrunetik, oso urrunetik. Sarreretan ere soldaduak egongo ziren hirira nor sartuko zen zainduko zutenak.





Ea dena ondo ulertu duzun. Lotu izena dagokion zenbakiarekin.

Dorreek, gainera, gezileiho izeneko leiho txikiak zituzten.

Leiho horietatik barrena, soldaduek geziak jaurtitzen zituzten. Gezileihoak estuagoak dira kanpoaldetik, etsaiarentzat zailagoa izan zedin asmatzea geziak jaurtitzen zituenean, eta zabalagoak barrualdetik, soldadu defendatzailearentzat errazagoa izan zedin ondo apuntatzea.

Erronda-pasagunea	1
Gezileihoak	2
Dorrea	3
Harresiaren horma-atala	4


Eraitza 32. orrialdean

Eskola

Santa Maria


Frai Zacarias Martinez

Katu
bazen behin. Gasteizen



Harresiari esker, jendea babestuago sentitzen zen lapurren eta bestelako arriskuen aurrean. Hori dela-eta, populazioa hazten joan zen pixkanaka-pixkanaka. Hala eta guztiz ere, hiriak oso txikia izaten jarraitzen zuen eta hiru kale besterik ez zituen, gaur egun Frai Zacarias Martinez, Santa Maria eta Eskola izena dute.

Horiek gaur egungo izenak dira, ez dakigu lehen nola izena zuten, nahiz eta historialariak ezagutzeko ikertzen jarraitzen duten!



Zein txikia zen
imajinatzeko, berdez
dagoen gaur egungo Alde
Zaharra gorriz dagoen eta
aurreko orrialdean
agertzen den garai bateko
Gasteizekin aldera
dezakezu. Gaur egungo hiria
grisez dago.

1181ean, Gasteiz izena
aldatu zuten. Baina hori
hurrengo abenturan ikusiko
dugu; orain, artistak izango
gara une batez!

Katu
bazen behin...

Gasteizen

GARZOILE 14



Artistak une batez

Artista zara? Ni bai! Gauza zoragarriak egiten ditut nire hankak eta nire isatsa erabiliz. Badakit ez duzula isatsik, desabantaila bat izango duzu, baina ziur ezin hobe aterako zaizula!


Plastilinazko maketa* bat egitea proposatzen dizut, zer iruditzen zaizu? Begiratu arretaz ikusi ditugun Gasteizko marrazkiak, zeurea egiteko inspirazio-iturri gisa erabil ditzakezu. Irakurri lehenik argibide guztiak eta gero... ekin lanari!

MATERIALAK

- Koloretako plastilina (marroia, urdina, berdea, horia...)
- Harri-kartoi zati bat, maketaren oinarri gisa balioko digu eta edozein paper-dendetan eskura dezakezu. Bestela, kartoizko kaxa baten folio baten tamainako zatia berrerrabili dezakezu.
- Plastikozko sare berde zati bat (lorategietan erabiltzen den bezalakoa), kartoiaren tamaina berekoa. Burdindegi batean eros dezakezu
- Grapagailu normal bat sare kartoian gratatzeko. Nahiago baduzu, zinta itsaskorrarekin itsatsi dezakezu sare kartoian.



Maketa egiteko unean, hartu gogoan aholku hauek:

- Lehenik zer egin behar duzun erabaki behar duzu: Gasteiz osoa izan daiteke harresiak inguratuta edo etxola bat ukuiluarekin, baratzarekin, animaliekin... Marrazkietan zenbait adibide ikus ditzakezu.
- Erabili nahi dituzun plastilina koloreak, baina ahalegindu ahalik eta errealistena izaten.
- Kontu izan tamainekin: pertsona batek ezin du zuhaitz bat baino altuagoa izan, edo animalia batek ezin du etxe bat baino handiago izan. Denak proportzionatua izan behar du.
- Hasi gauza handienak eta zailenak egiten, adibidez, etxeak, eta gero jarriko dituzu animaliak, zuhaitzak, baratzak... Gauza bat nola geratzen den gustatzen ez bazaizu, gogoratu plastilina dela, gauzak lekuz aldatu edo berregin ditzakezu.
- Gogoratu ez zegoela ez autorik, ez hegazkinik ezta lehoirik ere. Saiatu zure maketa garai hartako errealitatearen ahalik eta antzekoena izaten.





Ikus ditzagun jarraitu
beharreko urratsak

1- Esan heldu bati sare berdea
kartoian grapatzeko. Horixe izango
da zure maketaren oinarria.




2- Etxeak egiten hasiko gara. Bat
edo bat baino gehiago egin ditzakezu,
eta baita tamaina desberdinetakoak
ere (etxea eta ukuilua). Plastilina asko
landu behar da, etxeak egiteko, onena
txurroen metodoa erabiltzea da.
Begiratu arretaz marrazkia eta nola
egiten den ikusiko duzu.

3- Gasteiz osoa egitea aukeratu baduzu, etxearen oinarria karratu txiki bat eta teilatua hiruki batekin egitea gomendatzen dizut.



4- Baratzak, zuhaitzak... egin ditzakezu. Hona hemen hainbat adibide.

5- Animaliak egitea oso erraza da. Txerri bat egiten erakutsiko dizut, gainerako animaliak antzera egiten dira, egin nahi dituzun guztiak.




Animo artista!

Ziur primeran geldituko zaizula!

Katu
bazen behin... Gasteizen

Benoa, batera egin dugun lehen bidaia amaitu da. Espero dut nik bezain ondo pasako zenuela, eta laster elkar ikusiko dugula ikasten jarraitzeko.

Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedrala bisitatzen duzun hurrengo aldia begiratu arretaz, gutxien uste duzunean, baliteke katu urdin bat ikustea...





Dorrea: Dorre karratu edo borobila da eta zelatatzeko edo defendatzeko funtzioa du.

Egitura: Eraikin baten egitura gure hezurduraren antzekoa da. Imajina dezakezu gure gorputza hezurrik gabe? Ezingo ginatke zutik jarri! Etxe bati ere gauza bera gertatzen zaio: egiturarik gabe (egurrezkoa, harrizkoa, burdinazkoa... izan daiteke), etxea lurrera eroriko litzateke.

Etxola: Etxola etxe oso txikia da; normalean, gela bakarrekoa eta harriz, egurrez, adarrez, buztinez... egindakoa.

Goldatu: Golde batekin lurrean ildoak, zulo oso luzeak egitean datza, gero barazkiak, zerealak... landatzeko.

Katu
bazen behin... Gasteizen

Herrixka: Herri bat bezala da baina txikiagoa. Herrixka batek, adibidez, hiru etxe soilik izan ditzake. Gaur egun, oraindik, jende asko bizi da herrixketan.

Idia: Idia zezenaren antzekoa da, baina ezin du seme-alabarik izan, lasaiagoa da eta horregatik gurdietatik tiratzeko edo beste lan batzuk egiteko erabil daiteke.

Larrua: Animalien haragia estaltzen duen azala da eta, tratatu ostean, erabilera anitz izan ditzake.

Mandoa: Mandoa zaldi eta asto-eme baten alaba da, edo behor eta asto-ar batena. Mando-arrak ere badira, jakina.

Maketa: Maketa bat zerbaiten erreproduzio txikiagoa da. Badira itsasontzien, hiri edo herri osoen maketak, baita etxe edo eraikin garrantzitsuenak ere. Jatorrizkoak bezalakoak dira, baina askoz txikiagoak eta material askotakoak izan daitezke: plastikoa, egurra, kartoia...

Paletina: Paletina edo paleta triangulu formako pala oso txiki baten antzekoa eta esku batekin erabiltzen da. Arkeologoen gain, igeltseroek ere asko erabiltzen dute.

Emaitzak

Letra-zopa:

- Buztina
- Egurra
- Lastoa
- Adarrak
- Harria



Harresiaren elementuak:

- Erronda-pasagunea _____ 4
- Gezileiho _____ 3
- Dorrea _____ 1
- Harresiaren horma-atala _____ 2



Katu
bazen behin. Gasteizen

Katu bazen behin... Gasteizen

“Noizbait Gasteizko Santa Maria Katedrala bisitatu baduzu, agian ikusiko zenuen ezkutuka ibiltzen den katu urdin bat. Ni nintzen, Katu!”

Horrela hasten da “Bazen behin... Gasteizen” haur-liburu didaktikoa, neska-mutilei zuzendutako sail bateko lehena. Katuren familia Santa Maria Katedralaren inguruan bizi izan da belaunaldiz belaunaldi. Hori dela-eta, hainbat abenturen bidez, katedralaren historia, eraikuntza, arazoak eta zaharberritzea azalduko ditu eta VIII. mendeko Gasteizko biztanleak nola bizi ziren, herrixkak zer bilakaera izan zuen, Erdi Aroko defentsak-sistemak, arkeologiaren eta zaharberritzearen oinarriak, hala artistikoa nola arkitektonikoa, eta askoz gai gehiago erakutsiko dizkigu.

Hori guztia testuan txertatutako ariketen bidez, edukia berrikusten eta barneratzen laguntzeko.

Liburu bakoitza askotariko jarduera plastikoarekin osatzen da; modu erraz eta dibertigarrian, ikasitako guztia barneratzen eta irudikatzen lagunduko dute.

Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedralaren iraganera, orainaldira eta etorkizunera egindako bidaia zoragarri hau banaka edota familian irakurri eta egin daiteke.